

MANI FES TUA



FAOren arabera, giza kontsumorako ekoizten diren elikagaien herena hondatu egiten da edo alferrik galtzen da mundu osoan, hau da, ia 1.300 milioi tona urtean.

Europar Batasun osoan, 88 milioi tona elikagai zaborretara botatzen dira. Elikagaiok ekoiztearen eta ezabatzearen ondorioz, 170 milioi tona CO2 isurtzen dira, eta 26 milioi tona baliabide erabili behar izaten dira.

Euskadin, kalkulatzen denez (diagnostiko kuantitativoa oraindik ez dago bukatuta), urtean 350.000 tona elikagai inguru xahutzen dira.

Nazio Batuen Erakundeak, garapen jasangarrirako helburuen barruan, proposatzen du 2030erako erdira murriztea mundu osoko per capita elikagaien xahutzea hala txikizkako salmentan nola kontsumitzaileen mailan, eta elikagai gutxiago galtzea ekoizpen- eta hornidura-kateetan zein uztaren ondoren.

Era berean, eta nahiz eta mundu osoan nahikoa elikagai ekoizten den, gosea da oraindik garapenaren erronka premiazkoenetako bat. Gaur egun galtzen diren elikagaien erdiarekin bakarrik, goseak dauden biztanle guzti-guztiak elika litezke.

Hori dela eta, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikaren Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuekin bat eginez ([Gastronomia eta](#)

[Elikaduraren Plan Estrategikoa, 2020ko Ingurumen Esparru Programa, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Plana](#)), **Euskadiko Elikagaien Xahuketaren Aurkako Ekintza Plana** prestatzen ari da, Erika Fundazioaren bitartez. Plan horren esparruan, lan-mahai bat eta lantalde espezifikoak eratu dira, eta hainbat administrazioi eta elikakateko eragile guztien ordezkariak parte hartzen dute eta parte hartuko dute horietan.

Elikagai-soberakinak prebenitzeko, murrizteko, berrerabiltzeko eta berriz balioa emateko erronka lortzeko, administrazio publikoek ez ezik, gizarte oso-osoak esku hartu behar du: sektore ekonomiko guztiek (ekoizpen primarioa, eraldaketa, banaketa, ostalaritza, jatetxeak, sukalde zentralak...), ikerketa- eta teknologia-zentroek, unibertsitateek, erakunde sozialek eta bereziki herritarrek.

Horregatik, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikaren Sailburuordetzak, prestatzen ari den Ekintza Planaren barruan, honako manifestu hau egin du, Elikagai Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataforma sor dadila sustatzeko.

Manifestu hau sinatzen dugun erakunde eta elkarte publiko eta pribatuak eta eragileak jakitun gara lankidetzara, kontzientziazioa eta lan etengabea beharrezkoak direla elikagai-xahuketa murrizteko.

Horregatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

MANI FES TUA



K O N P R O M I S O

- Ekintza Plana martxan jartzen laguntzea eta haren garapenean aktiboki parte hartzea.
- Sinergiak sortzea, planarekin lotutako ekintza guztiak errazago martxan jartzeko.
- Elikagaiak xahutzen diren euskal elikakateko puntuak eta xahutze horien kausak identifikatzeko beharrezko informazioa ematea.
- Gizartea, eragile ekonomikoak eta hezkuntza-komunitatea elikagai-xahuketaren arazoaren gainean sentsibilizatzeko eragile gisa jardutea.
- Elikagaiak elikakateko etapa guztietan aprobeztatzeko jardunbide onen inguruko prestakuntza bultzatzea.
- Sare solidarioekin elkarlanean jarduteko akordioak bideratzea eta sustatzea.
- Elikagaiak dohaintzan emateko, azkenean giza kontsumorako erabiliko ez diren elikagaiak animalia-elikadurarako erabiltzeko eta beste hainbat ekintzatarako arau garbi eta adostuak zehazten laguntzea.
- Elikagaiak aprobeztatzeko bide emango duten arau-aldaketak eta segurtasun juridikoa sustatzea.
- Elikagaiak guztiz aprobeztatzeko irtenbide berritzaileak aztertzen eta martxan jartzen laguntzea.

_____ (e)n, _____ e)ko _____ aren _____ (e)(a)n